

Martutene

Amaia Etxeberria (943 21 09 37)

Loreak landatzen dituzue. Enpresa bat al zarete? Zuen loreak loredendetan salgai ikusten ditugun loreak al dira?

Bai, enpresa baten antzeran lan egiten dugu, hau baita gure ogibidea. Donostiako 20-25 bat loredendatara eramaten ditugu gure loreak, eta Donostiatik kanpoko beste hainbatera. Batzuetan nik eramaten ditut. Beste batzuetan, berriz, dendakoak etortzen dira hona loreak erostera.

Zenbat negutegi dituzue, zenbat langile?

7.000 metro karratu negutegi ditugu, 25 zonaldeetan banaturik. Ez dugu langilerik, etxekoon esku dago hemengo lana. Emaztea, seme-alabak eta ni aritzen gara hemen. Horrez gain, koinata batzuetan etortzen da laguntzera. Orain arte ondo konpondu gara horrela. Beraz, ez dugu kanpoko jendea hartzeko asmorik.

Nolatan hasi zineten honetan?

Duela 30 urte hasi ginen, eta hasieran zaletasuna besterik ez zen. Niri betidanik gustatu izan zaizkit loreak. Sortetan saltzen diren loreak landatzen lehenak izan ginen Gipuzkoan. Zaletasunak diru apur bat ematen zuela ikusi genuenean indartsuago hasi ginen lanean. Gu hasi eta gutxira beste batzuk ere hasi ziren sortetarako landatzen.

Zeintzuk dira gehien landatzen dituzuen loreak?

Krabeliña da batez ere

"Etxekoen esku dago hemengo lana"

Joxe Mari Etxebeste

Martuteneko Goiatzberri baserriko jabea da. Urteak dira jada, Etxebestetarrak lore landaketan hasi zinenetik.



Goiatzberri baserriko Etxebestetarrak sortetarako loreak landatzen lehenak izan ziren Gipuzkoan.

gehien lantzen duguna. Bestalde, liliuma, gladioloa eta arrosak landatzen ditugu. Liliuma lantzen ere gu izan ginen lehenak, eskualdean behintzat. Hala ere, krabeliña da gure lore-bitxia. Hainbat espezie landatzen ditugu: chinesisin edo txinatarak, minis txikiak, eta pixka bat handiagoak diren sim-ak. Minisen artean 25 bat mota ezberdin izaten ditugu.

Hazia bertakoa al da ala kanpotik ekartzen duzue?

Hazia kanpotik ekarri ohi

dugu, lorezaintza kultura indartsua duten tokietatik: Holandatik, Italiatik...

Sortetan saltzeko loreak lur berezirik behar al dute, ureztatze sistema berezirik?

Lurrari dagokionez, duela 4-5 urte landaketa hidroponikoarekin hasi ginen. Lur berezi bat da. Lehen zuzenean lurrean hazten genituen loreak, baina urte batzuen buruan lurra agortu egiten zen. Beraz, landaketa hidroponikoarekin hasi ginen.

Zertan datza landake-

ta sistema hori?

Sistema horrekin loreak ez dira zuzenean lurrean landatzen, prestaturik dauden lur berezietan baizik. Guk landaketa hidroponikoa egiteko, perlita, koko fibra eta turbak erabili ohi ditugu.

Eta ureztatze sistema berezirik erabiltzen al duzue?

Ez dugu ezer berezirik egiten. Gaur egun ordenadoreak ere sartu dira mundu honetan. Beraz, guk ureztatze sistemak programatu besterik ez dugu egiten.